



Ebazpena, 2015eko maiatzaren 12koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen horren bidez 2014-2015 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko egin zen deialdiaren 6.4) atala esleitzen da behin-behinean.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko sailburuaren 2014ko abenduaren 17ko Aginduaren bidez, 2014-2015 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen (2014ko abenduaren 19ko EHAA).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko sailburuordearen 2015eko martxoaren 12ko Ebazpenaren bidez ebatzi zen behin betikoz aipatutako deialdia, 6.2) atalari dagokiona.

Aipatutako deialdiaren 6.4) atalean ezarrita dagoenaren arabera, deialdiaren 6.2) atalari jarraituta, eskabideak aurkezteko epea baino beranduago matrikulatutako ikasleek badute laguntza eskatzeko eskubidea.

Aipatutako deialdia arautzen duen Aginduaren 8. artikulua arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Behin-behinean esleitzea deialdian araututako baldintzak betetzen dituzten Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako ikasleen diru-laguntzak.

Bigarrena: Interesdunak jakinarén gainean egon daitezen, deialdiaren behin-behineko esleipenaren zerrenden iragarpena egitea eta diru-laguntza kopurua eta hala dagokionean ukatzeko arrazoiak azaltzea "euskadi.net" Web-guneko iragarki taula elektronikoan.

Hirugarrena: Behin-behineko esleipen honen kontra alegazioak egin edo agiriak aurkez ditzake eskatzaileak bere interesen defentsarako. Alegaziook egutegiko 15 eguneko epean egin beharko dira, iragarki hau argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Laugarrena: Behin-behineko esleipenaren kontrako alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, Ebazpen hau behin betiko bihurtuko da, eta "euskadi.net" Web-guneko iragarki taula elektronikoan argitaratuko da, Deialdiaren, 8.3) atalean ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko maiatzaren 12an.



Olatz Garamendi Landa
 Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
 POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA